

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Iragarkiak

### IDAZKARITZA NAGUSIA

**Foru Gobernu Kontseiluak 2021eko martxoaren 30eko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena**

– Erabakiak:

#### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 164/2021 Erabakia, martxoaren 30ekoa. Onespena ematea OSAKIDETZA-Euskal Osasun Zerbitzuarekiko hitzarmenaren luzapena sinatzeari. Hitzarmen horrek baldintzak ezartzen ditu beharrezko materiala emateko Arabako Foru Aldundiaren mendeko erakunde eta organismoei, balizko agerraldi epidemiologikoetan.

Foru Gobernu Kontseiluaren 165/2021 Erabakia, martxoaren 30ekoa. Onestea genero Indarkeriaren aurkako 2020ko Estatu Itunaren funtsak udalen artean banatzea, Eudelek adostutako irizpideen arabera.

#### EKONOMIA GARAPENAREN, BERRIKUNTZAREN ETA DEMOGRAFIA ERRONKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 166/2021 Erabakia, martxoaren 30ekoa. Onespena ematea ikus-entzunezkoen sorkuntzarako 2021eko laguntzen deialdiari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 167/2021 Erabakia, martxoaren 30ekoa. Burgosko Diputazio Probintzialarekin Trebiñuko enklabeari buruzko Esparru Akordioa onestea.

#### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 168/2021 Erabakia, martxoaren 30ekoa. Onespena ematea Eulen SA enpresarekin eraikinak garbitzeko sinatutako kontratua luzatzeari 2021eko apirilaren 4tik 2022ko apirilaren 3ra, 1.742.799,04 euroko zenbatekoan.

Foru Gobernu Kontseiluaren 169/2021 Erabakia, martxoaren 30ekoa. Onespena ematea Arabako enpresetan kontratazioa sustatzeko 2020ko ekitaldirako laguntza deialdia ebazteari.

#### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 170/2021 Erabakia, martxoaren 30ekoa. Onespena ematea jarduera ekonomikoen gaineko zergari dagozkion 2020ko probintzia eta estatu kuotak banatzeari Arabako Lurralde Historikoko udalen artean.

Foru Gobernu Kontseiluaren 171/2021 Erabakia, martxoaren 30ekoa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiaren, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen, Gazteriaren Foru Erakundearen eta Arabako Foru Suhiltzaileen 2020ko ekitaldi ekonomiko diruzaintzako gerakinari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 172/2021 Erabakia, martxoaren 30ekoa. Onespena ematea 2021eko aurrekontura gehitzeari 2020ko aurrekontuko gastuen eta diru sarrerren hondarrak.

Foru Gobernu Kontseiluaren 173/2021 Erabakia, martxoaren 30ekoa. Onespena ematea aurrekontuak aldatzeko zenbait espedienteri, 2020ko ekitaldi ekonomikoko diruzaintzako gerakina onestearen ondorioz.

Foru Gobernu Kontseiluaren 174/2021 Erabakia, martxoaren 30ekoa. Onespena ematea 2021eko aurrekontura gehitzeari 2020ko aurrekontuko zenbait gastu xedapen.

Foru Gobernu Kontseiluaren 175/2021 Erabakia, martxoaren 30ekoa. Onespena ematea 3/2021 konpromiso kreditua sortzeko espedienteari, gastuen egoerako "Aholkularitza fruta arbolak jartzeari buruz" partida sortu berrian, Nekazaritza Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 176/2021 Erabakia, martxoaren 30ekoa. Onespena ematea 2021eko urtekoa 2022an banatzeko 3/2021 konpromiso kredituaren (22.000,00 euro) espedienteari, gastuen egoerako "Inbertsioak nekazaritzako ustiattegietan. Zuzeneko laguntza. AKK (2020)" partidan, Nekazaritza Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 177/2021 Erabakia, martxoaren 30ekoa. Aldatzea Amurrioko Udalari Amurrioko Aiara etorbideko 7 eta 9 zenbakietako beheko solairuko lokala "Emakumeen etxe" gisa doan erabiltzeko egindako lagapena.

#### GIZARTE POLITIKEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 178/2021 Erabakia, martxoaren 30ekoa. Onespena ematea aldatzeari Kontseiluaren otsailaren 2ko 42/2021 Erabakia.

#### NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 179/2021 Erabakia, martxoaren 30ekoa. Onespena ematea Arabako Lurralde Historikoan natura mugak eta bestelako muga zehatzak dituzten nekazaritza ustiategiei zuzendutako laguntzen 2021erako deialdiari, Euskal Autonomia Erkidegoko Landa Garapeneko 2015-2020 Programaren esparruan.

Foru Gobernu Kontseiluaren 180/2021 Erabakia, martxoaren 30ekoa. Ezestea Corres Garrido sozietate zibilak patata eta erremolatxa ekoizleentzako minimis laguntza deialdiari buruzko Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 22ko 690/2020 Erabakiaren aurka aurkeztutako errekurtsioa.

Foru Gobernu Kontseiluaren 181/2021 Erabakia, martxoaren 30ekoa. Onespena ematea aldatzeari Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 9ko 53/2021 Erabakia.

Foru Gobernu Kontseiluaren 182/2021 Erabakia, martxoaren 30ekoa. Onespena ematea laguntza osagarri bat emateari Arrato Ureztatzaileen Elkarteari, instalazio fotovoltaiko bat jartzeko Krispiñan dituen arazketa eta ponpaketa instalazioetan.

#### KULTURA ETA KIROL SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 183/2021 Erabakia, martxoaren 30ekoa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiak Gasteizko UNED zentro elkartuari 2021eko ekitaldian egin beharreko ekarpenari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 184/2021 Erabakia, martxoaren 30ekoa. Onespena ematea Añanako Kuadrillari dirulaguntza emateari, Micaela Portilla lantegi eskolaren funtzionamenduak eragindako gastuak finantzatzen laguntzeko.

Foru Gobernu Kontseiluaren 185/2021 Erabakia. Kirolaraba Fundazioari egindako transferentzia onestea eta kontsignatzea 2021eko ekitaldirako, eta baimena ematea 2021eko ekitaldian goi mailako klub eta kirolariei laguntzak emateko.

#### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 186/2021 Erabakia, martxoaren 30ekoa. Baiestea 2020-2021erako jasangarritasun energetikorako laguntza lerroari lotuta Zuiako Udalak egindako aurretiazko errekerimendua.

Foru Gobernu Kontseiluaren 187/2021 Erabakia, martxoaren 30ekoa. Baiestea 2020-2021erako jasangarritasun energetikorako laguntza lerroari lotuta Zalduondoko Udalak egindako aurretiazko errekerimendua.

Foru Gobernu Kontseiluaren 188/2021 Erabakia, martxoaren 30ekoa. Onespena ematea "Hondakinen behatokia eratu eta ezartzeko laguntza teknikoaren zerbitzua" emateko kontratazioari, 465.850,00 euroan, BEZa barne, eta gauzatzeko 3 urteko epearekin.

Foru Gobernu Kontseiluaren 189/2021 Erabakia, martxoaren 30ekoa. Behin betikoz onestea "Kontrastan hondakin uraren araztegia eraikitzeko proiektua", 597.320,37 euroko aurrekontuarekin, BEZa barne.